


Denbora




1 Puntuak lotu

Mendi buelta ederra egin ostean, Ander nekatua zegoen, eta lo kuluxka bat egitea pentsatu zuen. Non, ordea? **Puntuak lotu, eta asmatuko duzu.**

2 Bikiak

Xabi lagunekin arrantzara joan zen atzo. Bakoitzak bere kainabera eraman zuen, baina bi lagunek berdin-berdina zutela ohartu ziren. **Zein dira berdinak?**



Oparietarako paper bereziak

Opariak paper berezi batean estali nahi badituzu, jarraitu adi ondoko argibideei. Oparia egiteko paper dotoreagorik ez duzu izango


- Papera.
- Margoak.
- Pintzelak.
- Hostoak.
- Koloretako argizariak.
- Zinta.
- Kola.

Nola egin



1 Eskulana egiten hasi aurretik, mendi bueltatxo bat egitea komeni da. Txangoan lurrian aurkituko dituzun hostoak jaso itzazu poltsa batean. Orriak markatzeko, lehenik eta behin, hostoaren alde bat pinturarekin margotuko dugu.

2 Opariak biltzeko papera zabaldu, eta margotutako hostoa jarri gainean. Irudia orrian behar bezala finkatua geratzeko, zapaldu hostoa eskuarekin. Beste marrazki bat egiteko, pauso berak errepikatu. Margoa behar bezala lehortzen denean, has gaitzetzeko oparia biltzen.



3 Oparietako etiketak egiteko, ipini hosto bat orri baten azpian. Koloretako argizariarekin hostoaren gainean igurtzi, eta pixkanaka-pixkanaka hostoaren irudia paperean agertzen joango da. Argizariarekin papera margotzen jarraitu, hostoaren xehetasun guztiak agertu arte. Behin dena ongi margotua dagoenean, moztu hostoa.

-pasa

$$(5-2+8) \times (4-1+3) = \square$$

$$[(3+8-1) \times 5] : 2 = \square$$


$$[(6+3-1) : (4+1-3)] \times 10 = \square$$

$$[(3+7-1+2) \times 3] + 4 = \square$$

3 Buruari eragin

Egunetik egunera hobeto irteten zaizkizu buruketak, ezta?. Hona beste zenbaki zerrenda bat.

Ea emaitza egokia ateratzen duzun.



4 Etiketa amaitzeko, zinta zati bat moztu, eta korapilo bat egin. Itsatsi lokarri apaingarrira etiketari. Etiketaren atzean nahi duzun mezua idatzi, eta ipini opariaren gainean.

4 Itzalak

Begira zein pastel gozoa egin dioten Nahari bere urtebetetze egunerako. Ba al dakizu itzal hauetatik zein den pastelarena?

